



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2016KO AZAROAREN 7KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2016.11.07  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Zinegotziak:  
Mentxu Peña Lizarazu and.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-M.Carmen Mitxelena Ordoki andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Mendiko lanak esleitzeko deialdia.
- 4.-Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala.
- 5.-Alkatearen ebazpenak.
- 6.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.**

2016ko urriaren 10ean eta urriaren 31an egindako bileren aktak ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DITUZTE.

### **2.-M. CARMEN MITXELENA ORDOKI ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

M. Carmen Mitxelena Ordoki andreak, Zuazprun alderdian, haritz amerikanoen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (20 zuhaitzen matarrasa eta bide bazterrekoak matarrasa eta bertze gainerakoen entresaka, 1. poligonoko 187. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M.Carmen Mitxelenba Ordoki andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuo Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

### **3.-MENDIKO LANAK ESLEITZEKO DEIALDIA.**

Nafarroako Gobernuo Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak emandako 579/2016 ebazpenaren bidez, ekainaren 24koa, toki entitateek eta eragile pribatuek sustatzen dituzten basolanetarako laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onesten ditu 2016-2017 ekitaldirako.

Udal honek hainbat lan burutzeko diru laguntza eskaera aurkeztu du, landaketa lanak, bertzeak bertze.

Kontuan hartuz landaketa lanak negu aldian egitea beharrezkoa dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Ondorengo enpresei gonbidapena igortzea abenduaren 5erako proposamenak aurkezteko: Repoblaciones Etxarte S.L., Carlos Txoperena Matxikote, Berdabio Basogintza S.L. eta Pako Alzuri S.L.

### **4.-AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna izanen da.

Aurtengo goiburua hauxe da: herritargo konprometitu baten alde, emakumeenganako indarkeriaren kontra.

Horren inguruan, aho batez ERABAKI DUTE:

1) **GURE GAITZESPENA** indarkeria sexistari: agerian dagoenari nahiz ikusten ez denari, eta haren adierazpen guztiei, diskriminazioaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun faltaren emaitza direnak.

2) **GURE KONPROMISOA** Herri Erakunde gisa, era aktiboan ezberdintasunen eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ez orekatuen kontra lanean jarraitzeko, indarkeria-haztegia direlako, baita gure konpromisoa emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurrean erantzutetako ere, berdintasuna politika guztien ardatza izanen den legegintzaldi batean.

3) **GURE ELKARTASUNA** edozein eraso jasan edota hildako emakume horiekin guztiekin baita muturreko indarkeria sexistaren biktima izan direnekin ere. Gure babes osoa beraiendako eta beren familiendako.

4) **HERRITAR GUZTIAK GONBIDATZEN DITUGU**, emakumeen aurkako indarkeria gaitzespen jarrera erakusten jarraitzeko, banakoarena nahiz taldekoarena, indarkeria mota hori errotik kentzeko. Baita emakumeen bizitzan ematen diren indarkeria mota guztiak eta kontrol patriarkalaren adierazpen guztiak salatzeri. Eta, azkenik, azaroaren 25aren inguruan antolatuko diren jardueretan parte hartzera animatu nahi ditugu. Horrela, guztiok batera aurrera jarraituko dugu, geroz eta jasangarriagoa, demokratikoagoa, bidezkoagoa eta berdina izanen den gizartea baten bidean.



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

### 6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2016ko 129. ebazpenetik 141. ebazpena arte.

### 7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:**

### 8.- LARRETAKO BIDEARI BURUZ.

Arantzako Udalak, 2015eko uztailaren 3an egindako bileran, erabaki zuen Larretako alderdiko mugaketa espedienteari buruz, Jose Antonio Bereau Macicior jaunari eta M. Jesus Echeverria Agesta andreari jakinaraztea baldintza berriak jartzen zirela mugaketa espedientearekin ez segitzeko (ordezko bide berriaren zabaltasuna 1,5 metrokoa izatea eta Goemendi S.L. enpresaren fakturak euren kargura izatea) eta horren adostasuna adierazteko 2015eko uztailaren 31 arteko epea ematea.

Kontuan hartuz emandako epean Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta M. Jesus Echeverria Agesta andreak ez zutela erantzunik eman, 2015eko irailaren 3an espediente berririo hasia erabaki zen baina akordio bertan behera utzi zen 2015eko urriaren 26an eurekin bilera bat egin ondoren; bertan Jose Antonio Bereau Macicior jaunaren eta M. Jesus Echeverria Agesta andreaken lur zatien bazterretik markatzeko bide berriaren mugaketa lanak hasteko adostasuna agertu zuten eta ordu arteko egindako gastua euren gain hartu. Ondoren, adostutako bidea bertan markatu eta aktak jaso ziren eta maiatzaren 30a arte epea eman sinatzeko. Eguna hori pasa zen eskatutakoa sinatu gabe eta bertze epea jarri zen: ekainaren 30a.

Ikusirik ez zutela sinatu ez eta ere deus adierazi emandako epe horretan, Arantzako Udalak, 2016ko uztailaren 22an egindako bileran, Larretako alderdiko bidearen mugaketa egiteko akordioa hartu zen, hori berreskuratzeko herri ondasun bezala, nahiz katastroko planoetan agertu.

Akordioaren aurka, epearen barne, alegazioa aurkeztu zuten Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta M. Jesus Echeverria Agesta andreak, nahiz berraztertze errekurtsoa aipatu.

Udalak, 2016ko irailaren 20an egindako bileran erabaki zuen Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta M. Jesus Echeverria Agesta andreak aurkeztutako alegazioa ez onartzea eta espedientearekin jarraitzea akordioaren arabera.

2016ko azaroaren 4an Jose Antonio Bereau Macicior jaunak ahoz agertu du ordezkari bide berriaren akta eta planoak sinatzeko borondatea eta mugaketa prozesua bertan behera uzteko.

Gaia aztertu ondoren, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Antonio Bereau Macicior jaunari eta M. Jesus Echeverria Agesta andreari eskaera onartzea eta akta eta planoak sinatzeko aukera ematea, beti ere, eskaera idatziz eta bide berriaren moldaketa zehazten duen adierazpena aurkezteko baldintza pean.

Bertzerik gabe, gaueko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

